

Euskara Mankomunitatearen historia eta ibilbidea

Euskara Mankomunitatea, erakunde berezitu gisa, 1997. urtean sortu zen. Orduan onartu ziren estatutuak, eta nortasun juridiko propioa zuen erakundea jaio zen.

Mankomunitatea osatu zuten udalen arteko lankidetzak, nolana ere, askoz lehenagokoa da. Mankomunitaterik osatzen ez zuten arren, eskualdeko udalek hitzarmen baten bidez elkarlanean aritzea erabaki zuten, eta 1989. urtean jarri zuten eskualdeko euskara zerbitzua abian. Data hori da, hain zuzen ere, gaurko Euskara Mankomunitatearen abiapuntutzat jo litekeena. Orduan hasi ziren gure eskualdeko udalak, era planifikatu batean eta elkarlanean, euskara normalizatzeko ahaleginean. Hasierako urrats horretan eskualdeko euskara zerbitzuak bi euskara teknikari izan zituen.

Geroxeago, eta orain arte mantendu den irizpideari erantzunez, hirugarren teknikari bat hasi zen lanean, eta euskara zerbitzuaren esparru geografikoa hiru eskualdetan banatu zen, eskualde bakoitzak teknikari bana hartuta. Gaur egun, esan bezala, banaketa horri eusten zaio. Udalen arteko elkarlanak, beraz, ibilbide luzea egin du. Hasieran hitzarmen huts baten bitartez, eta aurrerago, lotura sendoagoa eta egonkorragoa ekarri zuen Mankomunitatea osatuz. Urte horietan guztietan udalen elkarketa horrek bere osaketari eutsi dio neurri oso handi batean. Bizpahiru udal izan dira urteen joan-etorrian sartu, atera eta ondoren berriz sartu direnak. Gainerako udalak hasieratik egon dira bertan, eta egun ere hala daude.

Mankomunitatearen egoitza fisikoari dagokionez, hasiera batean Lekunberrin kokatu zen, eta bertan aritzen ziren hiru euskara teknikariak lanean. Denborak aurrera egin ahala, eta ikusirik teknikariak lana gehienbat zegoen eskualdean bertan egin behar zuela, Mankomunitatea osatzen zuten hiru eskualdeetako bakoitzean bulego bana jartzea erabaki zen, teknikariek beren lana bertatik egin zezaten, bidenabar nork bere eskualdearekin lotura estuagoa ziurtatuz.

Mankomunitatearen egoitza ofiziala, nolana ere, lau urtetik behin tokiz aldatzen da, Lehendakaritza ere legegintzaldiaren aldaketarekin mugitu egiten baita.

Gaur egun Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea erakunde finkatua eta errotua da. 20 urtetik gorako ibilbidea egin du, euskararen normalizazioan egiteko garrantzitsu bat bete du eta etorkizunean ere bete beharko du.

Mankomunitatearen ibilbidea gidatu eta oinarritu duten helburuak estatutuetan honela daude jasota, hitzez hitz:

II. KAPITULUA

Helburuak

4. artikulua. Mankomunitatearen helburua, berau osatzen duten herriotan euskararen normalizazioa lortzea da, gaur egun euskarak bizi duen egoera minorizatua gaindituz.

Euskara gure herriaren funtsezko ondasuna eta oinarria denez eta herritar guztiek beronen ezagutza egokia lor dezaten, beharrezkoak diren bitartekoak jartzea eta helburu horrekin arlo ezberdinetan ari direnei laguntza ematea.

Euskaldunok, gure hizkuntza gizarte bizitzako arlo eta baldintza guztietan erabil dezagun urratsak ematea, eta ildo horretan doazen ekimenak lagundu eta bultzatzea.

Udaletan eta bere menpeko atal eta zerbitzu guztietan euskararen erabilera normalizatzea.

Udalei dagokien marko juridikoa helburu hauei egokitzea eta beste mailetako administrazio, erakunde zein herri eta gizarte erakundeek ere bide bera har dezaten eskatzea.

Euskararen normalizazio lanean, eskualdeko gizarte sektore guztien arteko koordinazioa estutzea, helburu hauek osoki eta globalki bete daitezen.

Aipatutako helburu hauek lortu ahal izateko, lagungarri gerta daitezkeen zuzen eta zeharkako behar adina ekintza, ordenantza eta zerbitzu antolatzea.